

Heri Aldizkaria

otomota

2002ko martxoa 75. alea



Nekane Lasa: bi txapel buru bakarrean

INAUTERIETAKO GIROA ARGAZKITAN
ELKARRIZKETA: MARTIN ARANBURU
BOTEPRONTOAN: JON PLAZAOLA

Pagoeta Haur Eskola



Haur Hezkuntzaren lehen zikloa (0-3 urte) eskaintzeko baimendua
Matrikula epea: martxoaren 11tik 22ra
Informazio gehiago nahi izanez gero, 605 72 85 76 telefonora deitu



70eko hamarkada erdialdean, gazteagoak ziren garaian, honako hauei ateratako argazkia:

Zutik: Maria Jesus Larrañaga, Jose Mari Kerejeta eta Mitxel Arrieta.

Eserita: Belen Elortza, Elortza, Kontxi, Santi Sasieta eta Aintzane.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599



Zuberoaren aldeko ekimena

Otsailaren 28an Udalbiltzak Zuberoaren alde prestatu duen ekimena aurkeztu zen Urretxuko kultur etxean. Aurkezpen ekitaldian ekimen honi euren babesa eskaini dioten Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako hainbat lagun ezagun izan ziren. Aurkezpenaz Gorka Igartua Goenkaleko aktore ezkiotarra, Juan Luis Aranburu musikari urretxuarra eta Asier Iriondo bertsolari legazpiarra arduratu ziren.

Zuberoaren aldeko ekimen hau Zuberoak azken urteotan bizi duen krisiari aurre egiten laguntzeko jaio da. Juan Luis Aranburu Euskal Herriko herrialde txikiena den Zuberoaren egoerari buruzko zenbait datu eskaini zituen: "Zuberoak egoera ekonomiko larria bizi du eta populazioa behera doa. Egun 13.000 biztanle ditu Zuberoak. Azken hamar urteotan 2.000 biztanle galdu ditu

eta datozen 10 urteotan beste 2.000 galduko dituela aurreikusten da. Gazteak inguruko industriguneetara joaten dira bizitzera".

Hori guztia ikusirik, Zuberoako 35 herriek osatzen duten Herri Elkargoak Zuberoa 2010 egitasmoa sortu dute. Honen helburua, bertako nortasuna eta azpiegiturak sustatuz, hamarkada honetan 2.600 lanpostu berri sortzea da. Udalbiltzak bere babesa eskaini dio egitasmo honi. Udalbiltzaren ekimenaren asmoa, Euskal Herriko gaitzetzeko herritar guztion artean Zuberoa 2010 egitasmoarentzat milioi bat euro biltzea da.

Udalbiltzak, herri bakoitzean bildu beharreko diru kopurua zehaztu du. Honakoak dira Urola Garaia bailarako herrietan bildu beharreko kopuruak: Ezkio-Itsason 1.150 euro, Legazpin

9.000 euro, Urretxun 6.750 euro eta Zumarragan 7.750 euro.

Zuberoa 2010 egitasmoari zuen dirulaguntza eskaini nahi badiozue, martxoaren 31ra bitartean Urretxuko Kalerrota kalean astelehenetik ostiralera arratsaldeko 7etatik 9etara irekitzen den bulegoan egin dezakezue. Legazpin, berriz, asteazken eta ostiraletan eman daiteke dirulaguntza: 7etatik 9etara Kultur Etxean.

Bestalde, Udalbiltzaren Zuberoaren aldeko ekimena bultzatzen ari diren bailarako lagunek, hitzaldi bat antolatu dute ostiral honetarako. Arratsaldeko 7etan Legazpiko kultur etxean izango den hitzaldi honetan, Joseba Garmendia ekonomilariak, Kontseiluko kide batek eta zuberotar batek herrialde honen egoeraren berri emango dute.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA
 Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA

Hasi da antzerki festa!

Riki Lopezek martxoaren lehen eskaini zuen saioak eman zion hasiera aurtengo Urretxu eta Zumarragako antzerki egitarauari. Dakizueenez, iaz, antzerki astea zena antzerki emanaldiak izatera pasa zen: hau da, maiatzean eta udazkenean izan genuen antzerkiak gozatzeko aukera. Aurten, berriz, hilero izango dugu antzerkia ikusteko aukera (abuztuan ezik).

Emanaldiak hileko lehen ostiraletan izango dira (uztailean eta azaroan ezik), gaueko 10etan Zelai-Arizti aretoan. Sarrerak 6 euro balio du eta, urtero bezala, bonoa ateratzeko aukera dago. Kultur etxean eta Zumarragako udaletxean eskuratu daitekeen bonoak 36 euro balio du.

Hurrengo antzezlanaren 5ean izango da. Egun horretan, Txalo antzerki taldeak "Dulce puta" lana antzeztuko du.



Itsaski zozketa

Gurutze Dominguezek irabazi zuen Zintzo-Mintzok antolatutako urtarrileko itsaski zozketa. Argazkian gustura asko ikus dezakezue. Otarra eusten heldu zion laguna gonbidatu ote zuen? Azkeneko zozketa martxokoa izan da. Alberto Bilbao "Biriki" izan da irabazlea eta apirilko zozketan jasoko du saria.

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31

ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 **URRETXU** ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza




Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 **URRETXU**

Beste txapel bat Maitane Anduezentzat

Otsailaren 24an Gipuzkoako Txapelketarako puntuagarria den Urretxuko VI. Trialsin Lehiaketa izan zen Santa Barbaran. Bertan, nesken artean, Maitane Andueza ezkiotarra izan zen irabazlea. Garaipen honi esker, nahiz eta txapelketako lehiaketa guztiak oraindik bukatu ez diren, Maitanek Gipuzkoako Txapelketa eskuratu zuen.

Egun, Maitane Gipuzkoako, Euskadiko, "Zona Norte"-ko eta estatuko txapelduna du. Azkeneko Munduko Txapelketan, berriz, hirugarren postua lortu zuen. Munduko Txapelketa izango da, hain zuzen ere, Maitaneren erronka nagusia denboraldi honetan. Txapelketa hau abuztuan izango da Austrian.



Inauterietako mozorro lehiaketa

Mairi Emakumeen Elkarteko kideek irabazi zuten Urretxuko tabernarietako asteartean antolatutako mozorro lehiaketako 450 euroko sari nagusia. Mairikoez egunkariez aintzineko-soinekoak egin zituzten. Lehiaketan bikoterik parte hartu ez zuenez, bikote onenari saria tribuz jantzita irten zen koadrila bati eman zioten. Hauek 300 euro jaso zituzten. Banakako mozorro onenari saria, 150 eurokoa, Mikel Lizarraldeki irabazi zuen. Mikel alargun alaiaz jantzi zen.

Zumarragako Martxa Andaluzian

Zumarragako danborradako 44 kide eta Aldapa txarangako 16 Malagako Fuengirola herrira joango dira martxoaren 14an, bertan urtero antolatzen duten "Feria Internacional de los Pueblos" delakoan parte hartzera.

Bertan bizi den euskaldun talde batek urtero euskal ordezkariak gonbidatzen ditu. Talde honetako kide bat urretxuarra denez, iaz Lurra taldea gonbidatu zuten. Aurten, danborrada bat eraman nahi zutenez, Zumarragako gonbidatu dute.

Danborrariak frantsesez eta sukaldariz jantzita joango dira, bi konpainia hauek baitira zaharrenak. Zumarragako danborrada beti musika bandarekin aritzen den arren, Fuengirolan Aldapa txarangarekin arituko da, antolatzailleek txaranga batekin joatea nahi baitzuten.

Danborrariak bi hilabete inguru daramatzate ostiraletan eta larunbatetan entsaiatzen. Bestalde, txarangarekin ere entsaiatu dute, txarangarekin jotzea eta bandarekin jotzea ez baita gauza berdina. Danborrariak pieza berriak ikasten ari dira Fuengirolan jotzeko: urtero jotzen dituztenez gain, Donostiako Martxa, Polka eta Retreta ere joko dituzte.

Danborradako zuzendari den Josean Mendizabalek esan digunez, "Fuengirolara joateko gogo biziz gaude, baina baita urduri ere. Erantzukizun handia da, Euskal Herria ordezkatu behar baitugu. Hobeto ezagutu gaitzaten, danborradaren historia idazten ari gara eta Urola Garaiko herrietako turismo foiletoak eraman behar ditugu. Fuengirolako alkateari, berriz, Zumarragako oroigarriak emango dizkiogu harrera egunean".



OTAMOTZ ALDIZKARIARI ZEURE BULTZADATXOA

Gogoratuko duzuen bezela, azkenaldi honetan urtero proposatzen dizuegu OTAMOTZ aldizkarirako **borondatezko harpidetza (suskripzioa)** egiteko aukera Zintzo-Mintzoko **bazkide ez zaretenoi**; aldizkaria etxean jasotzen duen bakoitzak, **nahi izanez gero**, urtean kuota txiki bat ordaintzeko aukera, alegia.

2002. urterako gauza bera proposatu nahi genizueke, izan ere Otamotz kaleratzeak sortarazten dizigun gastuak estaltzeko guztion laguntza beharko baitugu.

Oraingoan ere zeure esku geratzen da diru-kopurua aukeratzea. Proposamena bidezkoa iruditzen baldin bazaizu, bete ondoko fitxa, eta ekarri Zintzo-Mintzoren egoitzara (Labeaga kalea 12, etxeazpia), edo zuzen-zuzenean egin dirusarrera kontu honetan: **KUTXA: 0010242378**.

BORONDATEZKO HARPIDETZA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Urtean kuota hau ordainduko nuke:

-6 euro

-9 euro

-12 euro

Kontu kte. zkia:

Kutxa edo bankua:

Herria:



Araiz Padron

Elena Santiago, adierazpen limurtzailea

Asko irakurriak diren pertsoneri eskatu izan ohi diet liburuen zerrenda edo izenak. Gutxitan egiten dute huts. Lauzpabost urte igaro dira (ez dut uste urrutiegi joan naizenik, aspalditik nabil gauza errealean bila), era horretako eskakizun bat luzatu ostean "La oscuridad somos nosotros" liburua eskuetan jarri zidatela (gutxitan abiatzen naiz beraien bila, egunez egun bizitzen irakasten ari diren pertsonak arduratzen dira ene jakinmina asetzen). Elena Santiago, irakurri nuen egilearen txokoan. Ez nuen ezagutzen, eta egia esan behar badut, bera emakumea izateak bultzatu ninduen gehienbat aurrera jarraitzera. Azken egunotan ere Ixiar Rozas-en "Sartu, korrontea dabil" darabilt eskuetan. Konfidantza izan dut beti emakumeen hitzetan. Beti esaten didate zerbait txundigarria.

Amaitzen ez zen laket metaforiko eta linguistikoen baten jakitun den emakume bat aurkeztu zitzaidan. Zer gauza nabarmenagorik kuriositatea pizten duen gizakia baino? Hasitako bideak beti merezi du jarraipen bat. Txarrerako edo onerako, badago zer jaso. Segika hurbildu ziren, "Veva", "El amante asombrado", "Amor quieto" eta oroitzapenen negu sentikorrera barreiatu berri nauen "Asomada al invierno".

Azken honetan hartzen dut atsedean. Finisterren kokatua dagoen narrazio horrek ere, aurreko liburuetako tristezia atsegingarriaz jaiotako maitasuna du elementu nagusizat. Baina oraingoan konplize.

Galiziarra dut aita (horrek izakera, bi alde oso des-

berdinetan urduri aritzea dakar, erdi galegoa, erdi euskalduna. Alboan ditudan erdi hori osoa bilakatu zaidala diote; arrazoa ematea besterik ez zait geratzen errealitatea onartzen noan einean). Urte asko dira lur hori nirea bihurtu dudala, eta beharbada horregatik jarraitzen dut hunkitua Elena Santiagoren azken liburua amaitu ondoren. Bertako pertsonaia guztien hitzak ezagunak irudikatu ditut. Paisaia bakoitzaren umeltasuna jada ikasia nuen aurretik, baina Leonen jaiotako emakume horrek eman dien plasmazio zuzenaz, Galiza, "morriña" desiragarri bataiatu lurrea, haurtzaro garatu zait. Eta liburuaren azken hitzak irakurtzean, azalaren korrontea zioen momentu batez negu bilakatu nintzela (izenburua lez). Ez nintzen horretaz jabetu, ordea. Hori, idazlearen lana da.

Nolakoak diren gauzak, esistentziaren joan etorriak direla eta, beharrezko idazle izatetik laguna izatera pasa da Elena. Telefonoz zein e-mailez elkarri luzatzen dizkiogu ezezagunak zaizkigun begiradak, hitzaren esparru. Beharrezkoa bait da hitza. Errespetu eta on egitearen lautada.

Hortaz, eskertu nahi nizkioke idatziz, eta orain hitzez eskeintzen dizkidan sentimendu eta erreflexioak. Bere ahotsak marrazten duen egituran hartzen dut babes.

Era zuzenagorik egongo da, ez aldiz gertuagorik. Zure istorioak irakurleei gomendatu nahi dizkiet, Elena. Itzala areagotu. Oihartzunaren indarrak izatea aberastu dezake. Biok behar duguna.

BILINTX LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817

Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax: 673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050

Fax: 764050 20570 BERGARA



Udarako zure gorputza prestatzeko ohiturarik ba al duzu?



Nekane Garcia

Ez naiz batere prestatzen. Gainera ez dut denborarik. Ezagutzen dut uda aurretik dieta edo kirola egiten duen jendea eta ondo iruditzen zait. Norberak egin dezala nahi duena.



Aitor Gago

Ez dut udarako ezer berezirik egiten. Urte guztian berdin egoten naiz. Jendeak egin dezala nahi duena, baina nik ez nuke sekula kirurgia egingo.



Agustin Holgado

Ez naiz batere prestatzen udarako eta kirurgia estetikoak ez nuke sekula egingo. Operatu nauten bakoitzean beti iheska ibili naiz!



Olga Garrido

Ez dut ezer berezirik egiten, baina bakoitzaren egoeraren arabera dieta egitea ondo iruditzen zait. Kirurgia estetikoak egitea ere ondo iruditzen zait, egiten dionari onuraren bat ekarri behar badio.



Nerea Mendizabal

Noizbait kirola egiten hasia edo pentsatu dudana arren, azkenean ez naiz hasi. Nire ustez jendea gehiegi obsesionatzen da. Kirurgia estetikoak ez nuke sekula egingo.



Klaudio Roldan

Udarako espreski ez dut ezer berezirik egiten. Kirola egiten dut, adibidez, baina urte osoan. Kirurgia ere, guztiz beharrezkoa izango balitz soilik egingo nuke.

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzailerik:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa

fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbasa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Gaztetxoen bertso-eskola

Hamabost urte atzera egin beharko genuke, Urretxuko gaztetxoek bertso-eskolaren lehen aztarnak topatzeko. Orduko hartan, Iñaki Beitia zena eta Juanjo Sagastibeltza arduratu ziren egitasmo horretaz. Bertso grinak bultzaturik, gaztetxo asko bildu ziren bertan. Gorka Azkarate zen horietako bat. Orain, bera, Nagore Soroa ibarratarra eta Antton Fernandez azken bi urte hauetan "izoztuta" egon den eskola honen berpizkundeaz arduratu dira.

Azaroan koipeztatu zuten berriro ere makineria guztia, eta egun bi multzotan banatuta lan egiten dute. Alde batetik, txikienak dauzkagu, 5-10 urte bitarteko haurrak hain zuzen ere; beste aldetik, ordea, 14 urterarte iristen diren neska-mutilekin topo egin dezakegu. Guztira, 20 lagunekoa "koadrilatxo" jatorra osatzen dute. Eskola honen gainean zertxobait gehiago jakin nahi genuela eta, Gorka eta Nagoreekin aritu ginen solasean.



Nagore Soroa bere taldeko neska-mutilekin.

Nondik sortu da bertso-eskola hau aurrera eramateko ideia?

Gorka: Hemen, Urretxun, betidanik egon da umeen bertso-eskola. Dena dela, honek jada bi urte bazeraman geldirik. Horregatik, Zintzo-Mintzoren laguntzarekin, eskola hori berreskuratzen saiatu gara, eta hemen gaude berriro.

Nagore: Nik ez daukat gauza gehiegi esateko. Ea irakasle moduan etorri nahi nuen galdetu zidaten, eta nik onartu egin nuen, gustura gainera.

Zertarako sortzen da? Beharren bat asetzeko, zaletasuna pizteko...

Gorka: Nire ustez, zaletasuna egon badago. Helduen bertso-eskola bat izanda, umeekin antzeko zerbait egitea polita gerta litekeela iruditu zitzaigun. Lehen esan dudan bezala, batzuek benetako zaletasuna dute, eta gogo handiz etortzen dira. Beste batzuk, ordea, denborapasa gisa erabiltzen dute. Ingelesera edo "tiempo librera" joaten diren bezala, bertso-eskolara etortzen dira. Hala ere, horrek berdin dio; garrantzitsuena ondo pasatzea eta zertxobait ikastea baita.

Zer nolako umeekin topo egin duzue?

Gorka: Nire kasuan esan beharra daukat, txikienak berehalakoan ezagutzen dituzula. Segituan dakizu zein den langilea, zein "brillantea", zein datorren gogoz...

Nagore: Bakoitzak bere arrazoiak dauzka hona etortzeko. Batzuk benetan saiatzen dira, eta beste batzuk, aldiz, ondo pasatzera bakarrik etortzen dira.

Harribitxiren bat aurkitu al duzue?

Nagore: Bai, badago talentudun jendea. Haatik, oraindik garaiz da ezer esateko. Gertatzen dena da, "bitxo" batzuk molestatzera besterik ez direla etortzen. Horrek, gure dinamika mantsotu dezake modu batean edo bestean.

Pasa den urte bukaeran ospaturiko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiak izan duen oihartzunak, nolabaiteko eragina izan al du gaztetxo hauengan?

Gorka: Ni txikienekin nabil eta ez dut uste oihartu direnik ere. Agian konturatuko ziren, baina ez zien gehiegi eragingo.

Nagore: Nire ustez izan du eragina. Telebista piztu, eta bertsolari bat kantuan ari dela ikusten ditzunean, edo egunkari bat hartu eta bertso batzuk irakurtzen

dituzunean, zerbaitekin gelditzen zara, hala nolako mezu bat jasotzen duzu, inkonzienteki bada ere. Horri, aurretik zeneukan zaletasuna gehitzen badiozu...

Gorka: Txapelketa Nagusia datorren urtean egin izan balitz ere, jendea berdin-berdin hurbilduko litzateke bertso-eskolara. Txapelketak duen eragina subjektiboa da oso.

Bertsolaritzaren zerk edo nork erakartzen du umea?

Gorka: Ez da erraza erantzuten. Nire taldean nabaritu dut, pare batek benetako zaletasuna daukatela. Hori bai, ez dakit zergatik izango den. Baliteke etxeko giroak eragina izatea, baita telebistan ikusitakoak, edo irratian entzundakoak ere.

Zein da erabiltzen duzun metodologia?

Gorka: Txikienekin ezin da gauza askorik egin. Batik bat, errima ateratzea egiten diegu, zortziko txikiko doinu gutxi batzuk irakasten dizkiegu...

Nagore: Guk ez dugu paperik erabiltzen, dena buruz eta ahoz egiten saiatzen gera. Agurra etxetik buruz ikasita ekartzen dute, eta gero ariketa ezberdinak egiten ditugu. Gure helburua bat batekotasun hori

a berriro martxan

lantzea da. Joku ezberdinak txertatzen ditugu, pixkanaka-pixkanaka errimak zailagoak dira... etxekolanak ere bidaltzen dizkiegu.

Bertso-eskolak, bertsolari ooren lehen topaguneak al dira?

Gorka: Egun bai. Txikitatik zaletasuna eduki, eta noizbait bertsolari izan nahi duten horiek, eskola hauetan ematen dituzte lehen pausuak. Egun, hori da bidea.

Nagore: Lehen ez zegoen bertso-eskolarik, baina orain umetatik zaletu diren guztiak hemen hasten dira. Eskola hauetatik pasa gabe ere bihurtu edo izan zaitezke bertsolari etorkizunean, baina egun egituratuta dagoen moduan, hemen hasten zara kantuan.

Gorka: Egaña 20 urterekin zaletu zen bertsoetara; beraz, haurra zenean ez zen bertso-eskolara joan, baina beno...

Nagore: Irazu ere 17 urterekin hasi zen bertso eskolan. Azken finean, bertso-eskola, gogo eta ilusioa goian mantentzeko balio dizun koadrila baten modukoa da. Izan ere, bidea zerorrek bakarrik egitea zailagoa da beti ere.

"Bertso-eskolak lagungarriak dira. Bidea zerorrek bakarrik egitea zailagoa da beti ere"

Bertsolaritzaren biziraupenerako funtsezkoak al dira?

Gorka: Bai, eta batez ere oso euskaltzalea ez den herri honetan. Esaterako, Hernani bezalako herri batetan ez luke horrenbesteko garrantzirik izango, baina hemen bai. Dena dela, bertso-eskolen kopurua ez da handiegia.

Nagore: Bertsolaritzaren eta bertso-eskolen lankidetzak nahitaezkoa da. Lehenago, herri batean bertsoetarako zaletasun handia egon zitekeen, nahiz eta bertso-eskolarik ez existitu. Gaur, ordea, bertso zaletasun hori sortzearen edo suspertzearen ardura bertso-eskolena da.

Bertsolari "erromantikoaren", hots, bertso-eskolarik zapaldu gabe gailurrera iris-

ten den bertsolariaren figura bere azkenetan al dago?

Gorka: Pertsona horrek gaitasun bat edukiko luke.

Nagore: Nire ustez, Txirritak ere norbaiten ondoan ikasiko zuen. Gertatzen dena da, gaur egun bertsolaritza aztertuago, ikertuago dagoela. Agian, garai batean gauza batzuri ematen zitzaion garrantzia, eta egun, aldiz, bada alderantziz. Metodologia aldatu da. Garai bateko taberna giroan sortzen zen "bertso atmosfera" hori, bertso-eskoletan sortzen da gaur egun, bere ezberdintasunekin, noski. Ez dakit, parrandan zaudela edonor hasten da kantuan eta bertsoetan. Gauzak aldatu dira, garapen bat eman da, baina oinarria ia berbera dela uste dut.

Bestela, zein egoera bizi du bertsolariak Urretxu-Zumarragan?

Gorka: Azken bolada honetan dezente hobetu da. Helduen bertso-eskolen indarberitze horrek, eta egin diren bertso-trametak eragin nabaria izan dute. Orain parrandan, jendea bertsoa botatzeko gogoarekin ikusten duzu. Lehen, taldea mugatu xamarra zen, baina orain jende berria sartu da, eta goraka doa. Ea horrela jarraitzen dugun.

Eta Euskal Herrian?

Nagore: Nolabaiteko "boom"-a 93an eman zen, Euzkitze eta Sarasua maila gorenera iristearekin batera. Gero beherakada bat eman da. Orain, berriz, jende gazte asko mugitzen hasi da berriro ere. Zergatik? Bertsolariak ere geroz eta gazteagoak direlako. Era berean, ezin pasa gabe utzi, zaletu mota ezberdinak daudela: batzuk harrapatzen dituzten saio guztietara joaten dira, beste batzuk inguruko-etara edo txapelketako final-erdietara, eta gero, azkenik, finalera joaten direnak daude. Izan ere, Txapelketa Nagusiko finala ikuskizun sozial bat da. Baina beno, hau guztia ulertu beharra dago, futbolarekin edo beste ikuskizunekin gauza bera gertatzen da. Orokorrean, bertsolaritza osasun egoera onean aurkitzen dela esango nuke.

Gorka: Txapelketek jende asko biltzen dutela argi dago. Horrez gain, urtean zehar sariketa ezberdinak daude, Bertso-eguna ospatzen da...

Nagore: Osasuna ez da jende kopuruaren arabera soilik neurtu behar.

Montajes e Instalaciones Eléctricas
HERCE
Electricistas M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

TABERNA

Jaureru
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar zain

Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura

Labeaga 31 ☎943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilaria

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

URKI

liburudenda




Secundino Esnaola, 3
☎ 943 72 42 98
ZUMARRAGA



Inauteriak 20



02 argazkitan



RENEDO argazkiak
Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak
Labeaga 52-54 F URRETXU
☎ 725682 ☎ 722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

Martin Aranburu, lege

Martin Aranburu urretxuarrak oso gaztetatik sentitu du politika zaletasuna. Honela, batxilergoa bukatu zuenean, zientzia politikoak ikastea erabaki zuen eta Eusko Alkartasuna alderdian lanean hasi zen. Urte batzutan alderdi honetako gazte taldearen, "Gazte Abertzaleak"en, buru izan zen. Ondoren, EAk Gasteizko Legebiltzarrean duen lantaldean lanean aritu zen. Iaz, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako zerrendan sartzea proposatu zioten eta baietza eman zuen. 2001eko maiatzaren 13az gerostik, Eusko Legebiltzarreko kide da.

Nolatan politikarako zaletasun hori?

Txikitik, kanpoan gertatzen zirenek, nazioarteko harremanek... nire arreta pizten zutela gogoratzen dut. 18 urterekin zientzia politikoak ikastea erabaki nuen eta, aldi berean, Euskal Herrian bizi dugun egoera ikusirik, alderdiren batean sartzea koherentea zela ikusi nuen. "Gazte Abertzaleak"en militante sartu nintzen eta hortik Eusko Alkartasunara pasa nintzen.

Pixkanaka politiko profesionala izatera heldu zara...

Duela bi urte lan aukera bat sortu zen legebiltzarrean, Eusko Alkartasunaren talde teknikoan politologo moduan lan egiteko, eta baietz esan nion aukera horri. Lan horretan ikasitakoak eta beste zenbait alderdi kontuan hartuta, ni legebiltzarrerako zerrendetan joatea beharrezkoa zela estimatu zuten. Honelako aukerak bizitzan oso gutxitan sortzen dira eta nire adinarekin honelako aukera bat izatea oso interesgarritzat jo nuen.

Zein da zure lana legebiltzarrean?

Eako legebiltzarkide bakoitzak lau gai hartu ditugu eta hauetatik bat nagusia. Nik nekazaritza-arrantza, nazioarteko harremanak, industria-turismoa eta hezkuntza-kultura hartu ditut. Nagusiki azken hau jorratzen dut. Anjeles Iztueta sailburuarekin oso harreman zuzena dut, nire

alderdikidea baita eta biok eredu berdina nahi baitugu gure alderdiarentzat, Euskal Herriarentzat, hezkuntzarentzat... Bestalde, Eusko Legebiltzarrean batzorde ezberdinak daude eta hezkuntzako batzordearen arduraduna ni naiz. Hori dela eta, hezkuntza munduarekin harreman sakona dut.

Lan gogorra al da legebiltzarkidearena?

Nire ustez, garrantzi handia izango du norberaren alderdiaren legebiltzarkide kopuruak. PP, PSOE eta PNVkoek, gehiago direnez, lan gutxiago izango dutela uste dut. Guk, zazpi izanda, lan handia dugu. Aberasgarria da, baina oso gogorra ere bai. Egun dudan lan erritmoa ikusirik, lau urterekin nahikoa izango dut. Izan ere, eskola pilo bat izaten ditut demandaka, eskaintzen duzuna denentzat gutxi da, presioa oso handia da eta errekonozimendua oso txikia.

"Legebiltzarkidearen lana oso gogorra da. Egun dudan lan erritmoa ikusirik, lau urterekin nahikoa izango dut"

Ez duzu, beraz, legegintzaldi honen ostean, politikan jarraitzeko asmorik?

Erritmo honetan ez, behintzat. Doktoretza bukatzea, nazioarteko harremanetan espezializatzea eta gatazka mediazio lanetan burua sartzea gustatuko litzaidake. Lau urte barru Euskal Herria independentea izango denez (erdi txantxetan), beste gatazka batzuk ezagutzea gustatuko litzaidake.

Ez duzu zure burua sailburu lanetan ikusten...

Politika oso gogorra da. Gainera, alderdi politikoek euren kargu publikoen agintaldiak mugatu beharko

lituzketela uste dut. Nire ustez, kargu publikoetan urte asko ematea txarra da. Jende berberak hainbeste urtetan jarraitu izan ez balu, Euskal Herriko gatazka ez legoke egungo egoeran. Politikan negoziatu beharra dago eta negoziaketa hauetan tirabira pertsonalako sortzen



Udalbiltzarkide urretxuarra

dira. Hau arazoak konpontzeko zailtasun bat gehiago da.

Udal hauteskundeetarako zerrendak EAJrekin batera aurkeztearen alde edo aurka al zaude?

Ni ez naiz sekula PNVko kidea izan. Nire burua independentista ikusten dut, baina nagusiki sozialdemokraziaren baloreetan sinisten dut eta ez dut PNVk herri honentzat duen proiektuarekin bat egiten. Ez dut bi proiektuen arteko konpatibilitaterik ikusten eta, beraz, ez lehen eta ez orain ez dut egoki ikusten zerrenda bateratuak aurkeztea. Akordio nagusi baten aldekoa naiz: herri hau beste marko batera eraman nahi badugu, abertzale guztiok elkarrekin egin beharko dugu.

Zein da zuen proposamena?

Gure aldarrikapena Lizarra-Garaziko dinamika hartara itzultzea da: elkarrizketarako baldintzak sortu daitezela eta, orduan, alderdi bakoitzak mahai gainean jarri beharko du bere proposamena. Garai hartan printzipioetan ados jarri ginen, baina markoa gainditzeko orduan zalantzak azaldu ziren: ez ginen nori joan ados jarri. Dena den, ETAk azkarregi hautsi zuen su-etena. Garai hartan PPren barruan ere zalantzak agertzen hasiak ziren.

“Batasunak eta PNVk orainarte bezala jarraitzen badute, gainontzeko abertzaleok mugiarazi beharko ditugu”

Hau izan al zen arazo bakarra?

Akatsak denok egin genituen. Beste zenbait ordezkariarekin egin dako bileretan, beste prozesu bat

martxan jartzeko gai izango ote garen aztertzeko garaian, lehenengo kontuetako bat Lizarra-Garaziren etaparen diagnostikoa egitea izan da. Denon ustez, Lizarra-Garaziko akordioan erabiltzen genituen kontzeptuak (bakea, marko juridikoa gainditzea, Udalbiltza...) gauza ezberdina ziren bakoitzarentzat. Bestalde, bakoitzaren etxe barrua den bezalakoa da, beti sartzen dira hauteskundeak erdian... Dena den, beste izen batekin, Lizarra-Garazi errepikatu egingo da. Bestela ez dago irtenbiderik.

Ez dirudi irtenbidea oso gertu dagoenik...

Guk gure indarra zein den asumitzen dugu. Kuantitatiboki ez da handia, baina kualitatiboki bai. Lizarra-Garaziko prozesuan zehar EAK mantendu gabeko zenbait postura gabe ezinezkoa izango zen elkarrekin egotea Batasuna eta PNV. Egun ere, gure funtzioa hori da. Bestalde, gauzak dauden bezala jarraitzen badute, Batasuna borroka armatuaren aldeko estrategiarekin eta PNV indefinizioan, gainontzekook ere (Batzarre, Zutik, Aralar, AB eta EA) badugu hirugarren alternatiba bat sortzeko aukera. Helburuekin bat egiten badugu, denbora kontua da estrategian ados jartzea. Kuantitatiboki ez guke eraginik izango, baina bai PNV eta Batasuna mugitzeko ahalmena.

PP eta PSOE mugiarazten ere izango duzue lana...

Egun, PP eta PSOE ez nituzke zaku berean sartuko. Maiatzeko hauteskundeen ondoren, PSOE erreflexio gogor batean sartu da. PSOEren estrategia kongresuaren ondoren ikusiko dugu zertan gelditzen den. Bere garaian, PSOEri oso argi jarri genizkion bi baldintza: herriaren borondatea errespetatzeko konpromezua eta Nafarroa. Ezin dugu EAEan PSEREkin itun bat sinatu Nafarroan PSN UPNrekin badago. PPrekin, berriz, gauza oso zaila dago, Espainian hemengo egoera errentabilizatzen baitute. Gatazka honek berdin jarraitzea komeni zaie. Baina, gainontzekook mugitu beharra dugu, ezin diogu PPri beto eskubidea onartu.

Izenez-izen:

Begoña Errazti:

“Emakume oso ausarta, konparaketak egongo zirela jakinda Garaikoetxea ordezkatzeko oso ausarta izan zen. Ezkerzalea da eta bera dagoenetik ordezkari itza publiko hartu dugunok ezkerzaleak izatera behartuak gaude zorionez. Bizkaian jaiotako naparra izanik, oso argi du herri honek 7 herrialde dituela. Egun EAK izan dezakeen presidenterik onena da”.

Juan Jose Ibarretxe:

“Printzipio handiko gizona. Bere laguntza behar izan dudanean beti eman dit. Bere helburuak oso argi ditu, beste gauza bat da eguneroko kudeaketak zertara behartzen duen”.

Carlos Iturgaitz:

“Behin soilik hitz egin dut berarekin eta egunon besterik ez genion esan elkarri. Ez dut ez bere ildo politikorekin ez bere jarrerarekin bat egiten”.

Nicolas Redondo:

“Iturgaitzez esan dudana berbera”.

Arnaldo Otegi:

“Elkarrizketaren aldeko tipoa. Euskal Herria beste marko batera besteen kolaborazioaz eraman nahi duela argi dut. Nik erlazio ona dut berarekin. Guk ez guke arazo handirik izango berarekin adostasun batera iristeko”.

Javier Madrazo:

“Asko egin du elkarrizketaren alde Geston egon zenetik. Ausardia onartzen diot: Lizarraren aldeko apustua egitea zuenean bere balio pertsonala eta alderdian zuen pisua erakutsi zuen. Beste gauza bat kudeaketa da. Ez da erraza kudeaketara ohitzea eta Ezker Batuari asko kostatzen ari zaio”.

Emakume margolariak

Martxoaren 1etik 10era bitartean Zumarragako Arte Ederretako Eskolako emakumeek egindako margoen erakusketa zabalik izan da Zumarragako Itarte Etxean. Erakusketa honetan, 30 emakumek margotutako 60 koadro inguru izan dira ikusgai. Horien guztien artean, teknika ezberdinak erabiliz (arkatza, akuarela, olioa...), oso gai ezberdinak jorratzen dituzten koadroak aurki zitezkeen. Denetik pixka bat, beraz.

Erakusketa honen bultzatzaile nagusia iaztik Arte Ederretako Eskolan margotzen ikasten ari den Arantxa Corrales izan da. "Eskolan hasi eta berehala, bertan artista handiak zeudela ikusi nuen. Hori dela eta, emakume langilearen egunaren inguruan, eskolara joaten garen emakumeon lanekin erakusketa bat antolatzea bururatu zitzaidan".

Arantxak gainontzeko emakumeei erakusketan parte hartzea proposatu zien eta erantzun paregabea jaso zuen. "Ez nuen halako erantzunik espero, 30 emakume ingururen koadroak izan baitira Itarte Etxeko erakusketan. Bertan, benetako artelanak ikusteko aukera izan da. Jendea ez da hona denborapasa etortzen: hemengo lana oso serio hartzen du".

Izan ere, Arte Ederretako Eskolan, margotzen urte asko daraman jende asko topa daiteke. "Askok, pinturari esker, euren benetako trebezia zein den aurkitzeko eta azalarazteko aukera izan dute. Ni neu, bajaran nengonez, zer edo zer egiteagatik hasi nintzen eta margotzeko gai naizela ikusi dut. Horrez gain, Arte Ederretako Eskolak lagun asko egiteko aukera ere eskaintzen du. Elkarren lanari errespetu handia diogu eta guztion ahalegina aintzat hartzen da. Irakasleek ere, asko laguntzeaz gain, sekula ez digute kritika oso zorrotzik egiten".

Arantxak aipatzen dituen irakasle hauek, Dorleta Ugarteburu eta Laura Zendoia dira. Bien artean klase ezberdinetan banatuta dauden adin guztietako 200 ikasle ingururi irakasten diete. Laurak esan digunez, "urtean zehar teknika ezberdinak lantzen ditugu. Bestalde, ikastaro zehatzak eta laburragoak ere eskaintzen ditugu. Horretaz gain, urtean pare bat aldiz ikasleei euren lanak erakusteko aukera eskaintzen diegu. Izan ere, jendeari ilusio handia egiten dio bere lanak erakusteak".



Harizpi: eskulanak lagunartean

Azkenaldi honetan kultur etxeko azken solairura joan bazarete, eskubitarra arte ederrak jorratzen dabilen jendea ikusiko zenuten eta ezkerretara, berriz, jo eta su eskulan ezberdinak egiten ari ziren emakume batzuk. Azken horiek, Harizpi eskulan taldeko bazkideak dira. Josteko dela, altzariak konpontzeko dela... ia egunero kultur etxean biltzen dira. Horretaz gain, urtero eskulan ikastaroak antolatzen dituzte.

Urtarrilean, altzariak konpontzen ikasteko antolatu zuten ikastaroa amaitu zen. Berehala, beste bat abian jarri zuten, Urretxuko Udaleko kultur teknikariek batera. Izan ere, toki falta zela eta, jende askok ez zuten lehenengoan parte hartzeko aukerarik izan.

Harizpikoen arrakasta ez da kasualitatea: ia 20 urte daramatzate eskulanak egiten eta herritarrei eskulanak egiten ikasteko aukera eskaintzen. Beraiek esan digutenez, "Urretxuko Udalak makrame eta tapiz ikastaro batzuk antolatu zituen duela ia 20 urte. Gutako askok, ikastaro haietan ezagutu genuen elkar".

Garai hartan, Urretxuko kultur etxea oraindik egitasmo bat besterik ez zen. Baina, Udala, kultur etxea irekitzen zenerako, kultur eta aisialdi elkarteen sorrera bultzatzen ari zen. Hau ikusirik, eskulan ikastaroetan parte hartu zuten hainbat kidek Harizpi sortzea erabaki zuten.

Ordutik, makina bat ikastaro eskaini eta makina bat eskulan egin dituzte Harizpikoez: saskigintza, serigrafia, zeramika... Horretaz gain, urtean behin (Santa Anastasia jaien inguruan), euren lanak erakusten dituzte Juan de Lizarazu aretoan.

Egun Harizpik 15 bazkide ditu, denak emakumeak, baina gizonezkoek ere elkarteko ateak zabalik dituzte. "Hasieran, bagenuen gizonezko bat taldean, baina, gero, utzi egin zuen. Dena den, ikastaroetan beti ematen du izena gizonezkoren batek".



Aipatu bezala, hurrengo hilabeteetan, altzariak konpontzeko ikastaroa ikasten ariko dira lagun asko Harizpiren eskutik. Ikastaro hau astelehenetan eta asteazkenetan izaten da. Baina Harizpiko bazkideak gainontzeko egunetan ere elkartzen dira eskuartean dituzten lanak egiteko. "Lan hauek egiten elkarri laguntzen diogu. Izan ere, politena gure artean dugun lagun giroa baita. Hemendik kanpo ere elkartzen gara eta San Juanetan, afari bat egin ohi dugu".



MARTXOKO AGENDA

8, ostirala (emakumearen eguna)

-Arratsaldeko 4etan, kultur etxean, Eva Garciak "Bikotearen maitasuna" izenburua duen hitzaldia eskainiko du. Antolatzailea: Mairi.

10, igandea

-Eguerdiko ordubatetan, Zumarragako Musika Bandaren kontzertua Zelai-Arizti aretoan.
-Arratsaldeko 4:30etan, Pagoeta Antzokian, haurrentzako zinea: "Txigor animaliak salbatzera". Antolatzailea: Zintzo-Mintzo.

11, astelehena

-Arratsaldeko 4etan, Mairiren egoitzan, eskulanak bazkideen artean.

12, asteartea

-Arratsaldeko 4etan, Urretxuko Kiroldegian, Mairik antolatutako tai ji ikastaroa.

13, asteazkena

-Arratsaldeko 4etan, Urretxuko Kiroldegian, Mairik antolatutako tai ji ikastaroa.

14, osteguna

-Arratsaldeko 4etan, Urretxuko Kiroldegian, Mairik antolatutako tai ji ikastaroa.
-Arratsaldeko 7etan, Legazpi Dorretxean, "Secundino Esnaola" musika eskolako ikasleen kontzertua. Ganbaramusika.

15, ostirala

-Gaueko 10etan, Fritz Langen Metropolis filmea Zelai-Arizti aretoan. Sarrera doan.

17, igandea

-Ostadar Mendi Taldearen irteera Goierri eskualdean

zehir: Zumarraga-Goiko Txabola-Argixao (605 m.)-Trapalata-Otañu ((837 m.)-Brinkola.

-Arratsaldeko 4:30etan, Pagoeta Antzokian, haurrentzako zinea: "Ziegak eta herensugea". Antolatzailea: Zintzo-Mintzo.

18, astelehena

-Arratsaldeko 4etan, Mairiren egoitzan, eskulanak bazkideen artean.

20, asteazkena

-Arratsaldeko 4etan, Urretxuko Kiroldegian, Mairik antolatutako tai ji ikastaroa.

21, osteguna

-Arratsaldeko 4etan, Urretxuko Kiroldegian, Mairik antolatutako tai ji ikastaroa.

22, ostirala

-Arratsaldeko 7etan, Zelai-Arizti aretoan, "Secundino Esnaola" musika ikastetxeko ikasleen kontzertua.

-Arratsaldeko 7:30etan, Kultur Etxean, Carlos Mediavillaren eskutik diapositiba emanaldia: "Marruecos".

24, igandea

-Goierri Kirol Elkarteko mendi sailaren irteera: Ziordi-Legunbe (1.113 m.)-Urbasa-Bakedano.

-Arratsaldeko 4:30etan, Pagoeta Antzokian, haurrentzako zinea: "Gezi urdina". Antolatzailea: Zintzo-Mintzo.

25, astelehena

-Eguerdiko 12etan, Hika antzerki taldeak "Arraultza delikatua" antzeztuko du Pagoeta Antzokian.

-Arratsaldeko 4etan, Mairiren egoitzan, eskulanak bazkideen artean.

Erakusketak

-Martxoaren 15etik apirilaren 1era, Asier Larraza, Ari Pekka Auvinen eta Olaf Knarriken "Launtai" izeneko argazki erakusketa Itarte Etxean eta Juan de Lizarazu aretoan.

Ikastaroak

-Zuhaitzaren Soinua Kolektiboak antolatutako txalaparta ikastaroa. Izen-ematea, apirilaren 2tik 10a bitartean kultur etxean.

Lehiaketak

-Eskolarteko XV. Bertso-paper Lehiaketa. Lanak aurkezteko azken eguna: maiatzaren 20a.
-Pintura Lehiaketa. Lanak Kultur Etxean aurkeztu behar dira. Azken eguna: irailaren 13a.
-Argazki Lehiaketa. Lanak Zumarragako udaletxean aurkeztu behar dira. Azken eguna: irailaren 27a.
-Iparragirre Saria. Lanak kultur etxean edo Zumarragako udaletxean aurkeztu behar dira. Azken eguna: irailaren 27a.

FAMILIA BABES ASEURUA, honako guztiak barne:

-MEDIKUNTZA PRIBATUA.
-HORTZ KLINIKAK.
-TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.



-BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.
-HERIOTZ ASEURUA.
-ISTRIPU ASEURUAK.
-BIDAIA LAGUNTZA.

Labeaga, 16 URRETXU
☎ 943 72 93 69

La Previsora Bilbaina, S.A.
Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO
museoari atxikituriko enpresa



Urte berean bi ikastola... Jolin, ez da errekor makala! **Zorionak Aiala** oraintsu arte zure taldekide izan direnen partez.



Kevin, azkenean zuri ere tokatu zaizu hemen azaltzea. Espero dugu honek opari kopurua areagotzea. **Zorionak!**



Motel, motel. Erreala hain gaizki joatea ez duk horrela jartzeko. Maila galduz gero, Athletic zalea egin eta kitto! **Zorionak!**



Urte batzu pasa diren arren oraindik ere sasoi ederrean zaude. **Zorionak, Miren** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Ea pittin bat animatzen zaren eta belaun hori futbolean egiteko moduan jartzen dizuten. **Zorionak amona!**



Oilaskoak libre utzi eta letxu gabe geratu zarela eta suhiari hitza ukatzea ez dago batere ondo. **Zorionak Nikolas** jan da jolas!



Ez dirudi damutu zarenik! Urtebete inguru pasa da ezkondu zinenetik eta beti bezain alai ikusten zaitugu. **Zorionak Ainhoa!**



Ainhoa, hori da hori irrifarre gozoa! **Zorionak**, ondo pasa urtebetetze eguna eta segi orainarte bezain irrifartsu!



Aitor, kuxkuxero samarra zarela dirudi! Lepoa luze-luze eginda... zer demontre ikusi nahian zabilta? **Zorionak!**



Aitor, badakigu Chenoak irabaztea nahi zenuela, baina alaitu ezazu aurpegia pittin bat motel! **Zorionak** eta ondo ibili!



Ander, hori da hori musugorria duzuna! Esaiozu amari berogailua itzaltzeko, kiskali egingo zara bestela eta! **Zorionak!**



Arantza, altxa zaitetz behingoz aukitiki eta egin dantza! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Beni, etzazu txintxo aurpegia jarri, ederk asko ezagutzen zaitugu eta! Bula gehien egiten duen katekista zara. Hori da hori meritua!



Beñat, zer demontre egiten duk hor despistatu aurpegi hori jarrita? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Cristina, irakaslea bera baino "mari-maistra"-goa izango zara zu! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Elene, ondo pasa urtebetetze eguna eta segi orainarte bezain irrifartsu! **Zorionak** gurasoen eta familikoen partetik!



Izena motza duzu, baina zu zeu luze samarra zarela dirudi... argazkia sartzeko nahikoa komeri... **Zorionak Eli!**



Eneko, zer dela eta ari zara sokatik tiratika? Beste aldean neskaren bat dagoela apustu egingo genuke... **Zorionak!**



Eneko, bere izen berdina duzun arren, ez dirudi zure ezkerrekoa bezain alproja zarenik. **Zorionak** eta ondo ibili!



Garazi, zuk bai neska txintxoaren planta... etxean iritzi berdinekoak al dira? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Goretti, zer arraio gertatzen zaizu? Nahiko burumakur ikusten zaitugu... txakurren kakak ez dituzu zapalduko behintzat!



Haritz, zu ere kate motzean lotu beharreko horietako bat izango zara... hori da hori bihurri aurpegia duzuna! **Zorionak!**



Iara, argazki hau Otamatzerako zen, ez Profidenen iragarkirako! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Imanol, ez al duzu sekula pentsatu Errezilgo morroskoaren bidea jarraitzea? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Itziar, etxeko lanak egiten zaudela dirudi! Hori da hori neska langilea... **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Jairo, zure etxean urteak motzagoak al dira? Urtean bitan zorientzen zaitugu gutxienez! **Zorionak** oraingoan ere!



Jon, dagoenean bonbon eta ez dagoenean egon! **Zorionak** eta eziezaguzu horrela begiratu!



Jon, etzazu txintxo aurpegia jarri, zu ere bihurri samarra izango zara eta! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Jose Luis... oraingoan ere gustura asko zabilta, edalontzia eskuartearen duzula... Betaurreko berriak erosi al dituzu? **Zorionak!**



Josebe, hori da hori irrifarrea! **Zorionak** eta segi horren irrifartsu, ez da seinale txarra izango eta!



Julen, alaitu ezazu aurpegia, urtebetetze egunean opari mordoia jaso behar duzu eta! **Zorionak** eta ondo ibili!



Lourdes, zure txintxo aurpegia ikusita ez dugu ulertzen zer demontre egiten duzun Zumarragako katekistekin! **Zorionak!**



Marc, non demontre utzi dituzu adarrak? Barkatu, zure izen berbera duen beste batekin konfunditu zaitugu. **Zorionak!**



Markel, Maradonak baino ile gehiago daukazu! Ile azpian ere berak baino gehiago izango al duzu... **Zorionak** eta ondo pasa!



Mikel, egiozu kasu pixka bat argazkilarari, lan txukuna egiten saiatzen ari da eta! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Hona hemen kilkir anderea. Alabarekin elkartzen denean, hobe beraiegandik ihes egitea! **Zorionak Miren** eta segi horrela!



Geroz eta gazteagoen argazkiak ekartzen dizkigute... aurki jaio aurretik ez zer edo zer ekartzeko moldatu dira! **Zorionak Noelia!**



Pablo, oraingoan ere batenbat tontakariaren bat egiten ari al da zure alboan? Lastima ez duzun hortzik oraindik! **Zorionak!**



Saray, ba al zara zure izenaren esanahia zein den azaltzeko gai? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Rosario ala Sorrario esan behar al dugu? Onena ixilik egotea izango litzateke. **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Unai, beti berandu eta beti zai! **Zorionak** eta txintxo porta zaitetz, bihurri aurpegia duzu eta!



Xabier, dirudienez asko hazi zara azken urte honetan... jada argazkian ozta-ozta sartzzen zara! **Zorionak** eta ondo ibili!




Xabier, hori da hori aingeru aurpegia jartzen duzuna komeni zaizunean! **Zorionak** eta segi argazkian bezain txintxo!



Yobana, zure gazte denboran "Un, dos, tres..." telebista saioko azafata izan al zinen? **Zorionak** eta oraingoan ez hasarratu!

Nekane Lasa: bi txapel



Nekane Euskadiko Ziklo Kross Txapelketako podiumean.

Jose Mari Yurrebaso izan zen Euskadiko ziklo kross txapelketa irabazi zuen azken herritarra. Aurten, txapela Urretxu-Zumarragara itzuli da: Nekane Lasaren burura, hain zuzen ere. Hori gutxi balitz, Nekane Euskadiko mountain bike txapelketa ere irabazi du eta Belgikan izan den munduko ziklo kross txapelketan parte hartu du. Nekane 19 urte besterik ez ditu eta, bere gazetetasuna ikusirik, ziur datozen urteetan askoz ere txapel gehiago eskuratuko dituela.

Noiz hasi zinen lasterketetan parte hartzen?

Duela bi urte hasi nintzen mountain bike lasterketetan parte hartzen. Orain, martxoan, hirugarren denboraldia hasi dut. Mendiko bizikleta denboraldiak abendurarte irauten du eta, ondoren, ziklo krossekoa hasiko dut. Hau otsaila aldean bukatzen da. Bietan aritzen naizenez, ia urte osoan lasterketak ditut. Udan atsedena hartzen dut.

Zer dela eta erabaki zenuen ziklo krossean ere aritzea?

hartzera erabaki nuen. Ondoren, Zugaitz teknika aldetik gauza batzuk niri irakasten saiatu da.

Zein da bien arteko alderik handiena?

Nik behintzat, ziklo krossean mendiko bizikletan baino askoz ere gehiago sufritu dut. Izan ere, ziklo krossean ordu erdiz zirkuitu bati bueltak eman behar dizkiogu eta buelta bukatu. Beraz, ordu erdia pasatzen denean lasterketa buruan egoteko beti denak emanda joan behar baita. Ziklo krossean dena zelaia da, harririk gabe, eta

bidea zabalagoa da. Biak dira teknikoak, baina teknika desberdinak dituzte.

Non aritzen zara gusturago?

Noiz edo noiz ziklo kross gehiagorik ez nuela egingo pentsatu izan dut, asko sufritzen baita. Dena den, biak desberdinak dira, baina biak gustukoak ditut. Bietan jarraitzeko asmoa dut, baina mendiko bizikletari lehentasuna emango diot.

Batean edo bestean aritzeko, prestaketa ezberdina izango da...

Mendiko bizikletako lasterketak luzeagoak dira. Mendan astean behin edo bitan soilik entrenatzen dut, bestela zangoak nekatu egiten baitira. Ziklo krosseko, Mirandaolako parkera joaten naiz teknika entrenatzera. Bestalde, topera serieak egiten ditut. Esan bezala, ziklo krossean denbora guztian denak emanda joan behar da.

buru bakarrean

Zenbat entrenatzen duzu astean?

Sasoia lortzen dudanean astean lau aldiz entrenatzen dut. Errepidera irteten naizenean 40-60 kilometro inguru egiten ditut eta noizbehinka 100 bat. Astean behin mendira irteten naiz eta, bertan, 25 bat kilometro egiten ditut. Mendira joaten naizenean Zumarragako ospitaletik Gabiri aldera joatea atsegin dut. Baita Brinkolatik Aztirira ere.

Errepideko lasterketetan ez al duzu parte hartzen?

Aurten lasterketa bakarrean parte hartu dut. Gustatu zitzaidan, baina mountain bike-an eta ziklo krossean gusturago aritzen naiz. Libre baldin banago, datorren denboraldian errepideko lasterketaren batean ere parte hartuko dut, baina bestela ez.

Zein taldetan ibiltzen zara?

Orbea taldeak, profesional mailako mountain bike taldeaz gain, bigarren mailako talde bat ere badu, eta hortxe aritzen naiz. Arropa ematen digute eta bizikletak merkeago ematen dizkigute. Talde nagusian bi neska daude (hautako bat Marga Fullana txapelduna) eta bigarren mailakoan ni naiz neska bakarra.

“Munduko Ziklo kross Txapelketan parte hartzea oso polita izan zen, Belgikan sekulako zaletasuna baitago”

Euskadiko bi txapelketez gain, ze lasterketa irabazi dituzu azken denboraldian?

Mendiko bizikletako Euskadiko Openean Ezkioko Jaionek irabazi zizkidan lasterketa guztiak. Ia denetan bigarren gelditu nintzen. Hori dela eta, Euskadiko txapelketarako hobeto prestatzea erabaki nuen eta txapela lortu nuen. Prestaketa honi esker, neguko lasterketa ia guztiak irabazi nituen. Espainiako txapelketan, berriz, zazpigarrena izan nintzen. Ziklo krossean, Euskadi mailan, lehenengo lasterketa ez beste guztiak irabazi nituen. Espainiako txapelketan hirugarren gelditu nintzen.

Zer moduz munduko ziklo kross txapelketan?

Espainiako txapelketako hiru lehenengoak eraman gintuzten eta hau izan da hemen ingurutik kanpo egin dudana lasterketa bakarra. Oso esperientzia polita izan da. Izan ere, lasterketa Belgikan izan zen eta, bertan, sekulako ziklo kross zaletasuna dago. Zirkuitua bete bete eginda zegoen eta izugarri animatzen gintuzten. Ez gindoazen aurrean ibiltzeko asmoz eta, beraz, ez ginen oso urduri egon. Azkenean 30. sailkatu nintzen.

Garestia al da bi txirrindularitza-modalitatean aritzea?

Garestia da bai, batez ere materialagatik. Zugaitzengatik ez balitz ez nuke ziklo krossa egingo. Izan ere, bi edo hiru bizikleta behar dira eta berak utzi dizkit. Bidaiak, mekanikoaren lanak... ere guk ordaindu behar ditugu. Zugaitzek Beasaingo Jokin Mujika dendan lan egiten du eta berak konpontzen dizkit bizikletak lanorduetatik kanpo.

Nola ikusten duzu emakumezkoen txirrindularitza?

Errepideko lasterketetan neska dextentek parte hartzen dute, baina mendiko bizikletan eta ziklo krossean oso gutxi aritzen gara. Mendiko bizikletako lasterketetan zortzi bat neskak parte hartzen dugu eta ziklo kross lasterketetan hamabi inguruk.

Zer moduzko harremana duzue neska txirrindularien artean?

Mendiko bizikletan eta ziklo krossean aritzen garenon arteko harremana oso ona da. Errepidean aritzen direnen arteko harremana, berriz, ez da hain ona. Talde barruko harreman handia dago, baina talde ezberdinetako txirrindularien artean ez dago ziklo krossean edo mendiko bizikletan bezain giro jatorra.

Zer itxaropen dituzu hasi berria duzun denboraldirako?

Orainarte bi denboraldi bete ditut eta batetik bestera asko hobetu nuen. Denboraldi honetan ere emaitza hobeak lortzea espero dut. Orainarte bezala entrenatzen jarraitzen baldin badut, dezente hobetzeko aukera dudala uste dut. Ahal dudana tokiraino helduko naiz.

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

Herri Aldizkaria

Otamotz

aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 72 57 75 telefonora.

Merkea eta ona!

BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA

Legazpi, 5
☎ 943 726274
ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA



Jon Plazaola

Jon, Ikastolan eta Lizeoan ikasi ondoren, Leioara joan zen Arte Ederrak ikastera. Kazetaritza edo Arte Ederrak ikasi zalantzan zegoen, baina "Unibertsitatea eza-gutzerara joan ginen eta Arte Ederretako fakultatea eta bertako giroa asko gustatu zitzaizkidan". Ez da ez erabakiaz damutu. "Klasean oso laguntalde ona egin dut eta pisuan ere primeran moldatzen gara". Ikasketei dagokionez, argazkigintza omen du alorrik gustukoena. "Izugarrizko aukera pila ematen ditu. Nik eguneroko gauzei argazkiak ateratzea atsegin dut batez ere: kalera atera eta deigarriak iruditzen zaizkidan gauzei argazkiak ateratzea".

Ikasketetik kanpora, Jonek futbola oso gustukoa du eta Urola taldearen 2. errejionaleko taldean jokatzen du. Bestalde, The Intrepid Fox taldean lanean izan da duela gutxirarte eta, bertan lanean ari zela, umorista lanetan hasi zen. "Iker Antiarekin jendea imitatzen ibiltzen nintzen eta, halako batean, McReak berarekin jendaurrean aritzea proposatu zidan. Lehenengo saioan oso gustura aritu nintzen eta, orduetik, herritik kanpo ere aritu gara".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Futbolaria, egun guztian baloiarekin ibiltzen nintzen.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Gehienbat lagunekin egotea. Denbora baldin badut, baita komikiak marraztea ere.

-Bizitzeko toki bat?

Urretxu. Denetik du eta denok ezagutzen gara.

-Gustuko futbolaria?

Stoichkov.

-Gustuko umorista?

Umöre ingelesa atsegin dut: Smith eta Jones, Gazteak, Paregabeko pare...

-Gustuko margolaria eta marrazkilaria?

Errenazimenduko margolariak atsegin ditut. Detaileak asko zaintzen zituzten eta lan handiena hartzen zutenak ziren. Komikietan, berriz, denetik atsegin dut. Komiki serioetan marrazkia ondo landuta egotea atsegin dut. Umorezkoetan, marrazki traketsa ondo geldi daiteke.

-Hondarribiko Alardea ala Urretxuko Euskal Jaia?

Urretxuko Euskal Jaia, noski!

-Gustuko edaria?

Edateko Voll Damm eta zerbitzatzeko kalimotxo.

-Barraren barrualdea edo kanpoaldea nahiago?

Bietan ondo moldatzen naiz.

-McRea ala Txarli?

Bakoitzak bere puntua du. McRea oso orijinala da eta Txarlik, berriz, sekulako alaitasuna du.

-Tabernan giroa sortzeko zer musika jartzea atsegin zenuen?

Parrandarako onena euskal musika da. Lagunartean, Eganen "Lo ez egin" abestia kantatzeko ohitura dugu.

-Antzezteko, Fox ala Arriaga nahiago?

Fox nahiago dut. Lagunartean aritzea nahiago dut. Jende ezaguna ikusteak asko laguntzen du.

-Ilehorriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

-Egindako azken oparia?

Kandela bat.

-Eta jasotakoa?

Argazki bat.

-Data bat?

Santa Lutzi eguna oso gustukoa dut.

-Neska eta mutil izen bana?

Anartz eta Aitziber.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Gehienetan Gara.

-Gustuko telebista saioa?

Shin Chan. Haurrak alaitzen ditu eta txikitan ikusten nituen marrazki bizidunak gogorazten dizkit.

-Bereziki gorroto duzuna?

"Gran Hermano", "Operación triunfo", "Confianza ciega" eta antzekoak. Jendearen intimitatea ezagutzeko grina ez dut ulertzen.

-Liburu bat?

"Que todo es imposible".

-Filme bat?

"Reservoir dogs". Tarantinoren guztiak atsegin ditut.

-Gustuko abestia?

Asko atsegin ditut, baina bat aukeratzekotan, Kortaturen "Sarri, sarri" aukeratuko nuke.

-Soinu bat?

Gosetuta nagoenean, mikroondasarena.

-Usain bat?

Inzentsuarena.

-Janari bat?

Amamak prestatzen duen edozein.

-Ura ala...

Voll Damm.

Sector Elizalde Urretxu



Planta Bajocubierta



Planta Sotano



Planta Baja

Planta Alta



Promoción Inmobiliaria
PROGEN, S.A.

Informazioa eta salmenta: PROGEN, S.A. ☎ 943 31 12 18

Txokoa, bi autoentzako garaia eta loratokia duten 3 eta 4 logeletako elkarri atxikitako etxeak



SUKALDE ERAKUSKETA



Udala enparantza, z/g.

☎ 943 79 00 43

20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5

☎ 943 72 50 75

20700 URRETUXU